

9. KOSTUAREN EGITURA

Gure enpresa aurrera eramateko, lehenik eta behin, dirua lortu behar dugu: Horretarako, "Lanbide" izeneko Euskal enplegu zerbitzuari dirua eskatuko diogu eta, hiru pertsona izateagatik, guztira lortuko dugun diru-laguntza 5.100€-koa izango da.

Behin dirua lortu dugunean, diru hori hainbat gauzetan inbertituko dugu. Bat-bateko gastuekin hasteko, gasturik garrantzitsuena, gure produktua patentatzea izango da. Horrek, gutxi gorabehera 1.000€ inguru kostatuko du. Bigarrena ere, 3D inprimagailua, bat-bateko gastu bat izango da, eta, 3D inprimagailuko bi makinek, 2.400€ balio dute gutxi gorabehera. 3D inprimagailuak gure produktuaren hainbat prototipo egiteko erabiliko ditugu, gero horiek eskoletara bidaltzeko. Horretaz gain, diseinu berriak egiteko ere erabiliko ditugu.

Kostu finkoekin jarraituz, web-gune bat sortuko dugu gure kabuz. Hau, "Shopify" izeneko aplikazio baten bitartez egingo dugu eta horren kostua, 15€ koa izango da hilabetero.

Kostu aldagarriei dagokienez, sare sozialetan gure produktuaren inguruko publizitatea egingo dugu, hau da, sare sozialetan garrantzia edo influentzia asko duen norbaiti ordainduko diogu gure produktua publizitzeko. 3D inprimagailuak eta tresna guztiak gure taldeko garaje batean gordeko ditugu, hau da, ez dugu ezer ordaindu behar alde horretatik. Alabaina, garaje horren argi-indarra ordaindu beharko genuke. Gainen, horren kostua, aldatu egin daiteke hilabetero. Azkenik, 3D-ko bi makina ditugula kontuan izanda, horien materialak erosi behar dugu, (PLA izenekoa). Zinta bakoitza 20€ balio duela jakinda, urtean 1.400€ ordaindu beharko genuke inprimagailuen materialengatik.

Aipatu ditugun kostu guztia, gure enpresa aurrera eramateko lehenengo urtean ordaindu beharko genukeena da. Gure produktua arrakasta handia edukitzen badu eta gure enpresa handitzen bada, etorkizunera begira, gastu desberdinak egingo genituzkeen eta, horiek, hipotetikoak hauek izango ziren: produkzioaz eta hauen garraioaz arduratuko den talde bat eta web-gunearen kudeaketaz arduratuko den beste talde bat kontratatuko genukeen esaterako.

HASIERAKO KOSTU FINKOAK

1. Produktuaren patentea.
2. 3D inprimagailuak (2). → Diseinu berriak egiteko erabiliko dira.
 - 2.1. Produktua eraginkorra:
 - 2.1.1. Produkzioaz arduratuko den enpresarekin kontaktatu.
3. Web-gunearen sorkuntza (Shopify) → 15€/hilabetero.
 - 3.1. Publizitatea: Sare Soziales bidez.

<u>KOSTU MOTA</u>		
<u>BAT-BATEKO GASTUA</u>	<u>PATENTEA</u>	1.000€
	<u>3D INPRIMAGAILUA</u>	2.400€
<u>FINKOA</u>	<u>WEB-GUNEA (SHOPIFY)</u>	180€

<u>ALDAGARRIA</u>	<u>SARE SOZIALEN PUBLIZITATEA</u>	500€
	<u>LOKALAREN ARGINDARRA</u>	--
	<u>INPRIMAGAILURAKO MATERIALA (PLA)</u>	1.400€
<u>HASIERAKO INBERTSIO TOTALA</u>	<u>GASTU TOTALA</u>	5.500€/urte

DIRU-LAGUNTZAK: Lanbide izeneko diru-laguntzak → 1.700€/pertsoneko.

- Diru-laguntza totala: 5.100€.

ETORKIZUNEN KOSTU HIPOTETIKOAK

1. Produkzioaz arduratuko den taldea.
2. Webgunearen kudeaketaz arduratuko den taldea
3. Banaketa sistema.